— Entregas de desechos nuevos de la industria, desperdicios y desechos de fundición, residuos y demás materiales de recuperación constituidos por metales férricos y no férricos, sus aleaciones, escorias, cenizas y residuos de la industria que contengan metales o sus aleaciones.

— Las operaciones de selección, corte, fragmentación y prensado que se efectúen sobre los productos citados en el guión anterior.

— Entregas de desperdicios o desechos de papel, cartón o vidrio.

— Entregas de productos semielaborados resultantes de la transformación, elaboración o fundición de los metales no férricos referidos en el primer guión, con excepción de los compuestos por níquel. En particular, se considerarán productos semielaborados los lingotes, bloques, placas, barras, grano, granalla y alambón.

En todo caso, se considerarán comprendidas en los párrafos anteriores las entregas de los materiales definidos en el Anexo de esta Norma Foral.

d) Cuando se trate de prestaciones de servicios que tengan por objeto derechos de emisión, reducciones certificadas de emisiones y unidades de reducción de emisiones de gases de efecto invernadero a que se refieren la Ley 1/2005, de 9 de marzo, por la que se regula el régimen del comercio de derechos de emisión de gases de efecto invernadero y el Real Decreto 1031/2007, de 20 de julio, por el que se desarrolla el marco de participación en los mecanismos de flexibilidad del Protocolo de Kioto.

3.º Las personas jurídicas que no actúen como empresarios o profesionales pero sean destinatarias de las operaciones sujetas al Impuesto que se indican a continuación realizadas por empresarios o profesionales no establecidos en el territorio de aplicación del mismo:

a) Las entregas subsiguientes a las adquisiciones intracomunitarias a que se refiere el artículo 26, apartado tres, de esta Norma Foral, cuando hayan comunicado al empresario o profesional que las realiza el número de identificación que a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido tengan asignado por la Administración española.

b) Foru arau honetako 69. eta 70. artikuluetan aipatutako zerbitzugintzak.

4. Aurreko zenbakietan xedatutakoa eragotzi gabe, 68. artikuluko zazpigarren idatz-zatian xedatutakoaren arabera Zergaren aplikazio-lurraldean egintzat jotzen diren emateen bidez gasa edo elektrizitatea jasotzen duten enpresaburuak edo profesionalak, bai eta ez enpresaburu, ez profesional gisa ari ez diren pertsona juridikoak ere, baldin eta ematea lurralde horretan ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesional batek egiten badu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako Espainiako administrazio batek emandako identifikazio-zenbakia jakinarazi badiote.

Bi.—Foru arau honetan xedatutakoaren ondoreetarako, Zergaren aplikazio-lurraldean egoiliartutzat joko dira jarduera ekonomikoaren egoitza, zerga egoitza edo kargapeko ondasun emateak eta zerbitzuak egiteko erabiltzen den establezimendu iraunkorra bertan duten subjektu pasiboak.

Subjektu pasibo batek establezimendu iraunkorra ondasun emateak edo zerbitzuak egiteko erabiltzen duela pentsatuko da bertako ekoizpen-faktore materialak edo ekoizpeneko giza baliabideak ondasunak edo zerbitzuak egiteko antolatzen baditu.

Hiru.—Subjektu pasibotzat hartzen dira jaraunspen banatugabeak, ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik izan ez arren zergagai diren batasun ekonomikoa edo ondare banandu izaera duten gainontzeko entitateak, baldin eta Zergari lotzen zaizkien eragiketak burutzen badituzte.»

Hamaika.—117 bis artikulua erantsi da; hona:

«**117 bis artikulua—Zergaren aplikazio-lurraldeko enpresaburuek edo profesionalak Batasunean egindako eragiketengatik (lurralde horretakoak ez besteak) jasandako kuotak itzultzeko eskabideak**

Zergaren aplikazio-lurraldeko enpresaburuek eta profesionalak Batasunean egindako ondasun edo zerbitzuen eskuraketengatik eta inportazioengatik jasandako kuotak itzultzeko eskatuko dute (lurralde horretan egindakoengatik kuotak ez dira itzuliko), eta horretarako eskabidea aurkeztu behar dute Zerga Administrazioak berriaz jarritako formularioak erabilia.

Eskabide hauek jasotzeko eta izapidetzeko prozedura arau bidez finkatuko da.»

Hamabi.—VIII. tituluko III. kapituluaren izenburua aldatu da eta honela geratu da:

«III. KAPITULUA

ZERGAREN APLIKAZIO-LURRALDEAN EZARRITA EZ DAUDEN ENPRESABURU ETA PROFESIONALENTZAKO ITZULKETAK»

Hamahiru.—119. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

«**119. artikulua.—Zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez egon arren Batasunean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan establezimendua duten enpresaburu eta profesionalentzako itzulketen araubide berezia**

Bat.—Zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez egon arren Batasunean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan establezimendua duten enpresaburuek eta profesionalak lurralde horretan egindako ondasun eta zerbitzuen eskuraketa eta inportazioengatik jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak itzultzeko eskatu ahal izango dute, artikuluhonetan ezarritakoaren arabera eta arau bidez ezarriko diren epealdiei eta prozedurari atxikita.

Horren ondoreetarako, Zergaren aplikazio-lurraldean establezimendu iraunkorra eduki arren eskabidean aipatutako aldian bertan ez ondasun ematerik ez zerbitzurik egin ez duten enpresaburuak eta profesionalak ez dira hartuko lurralde hartan ezarritzat.

b) Las prestaciones de servicios a que se refieren los artículos 69 y 70 de esta Norma Foral.

4.º Sin perjuicio de lo dispuesto en los números anteriores, los empresarios o profesionales, así como las personas jurídicas que no actúen como empresarios o profesionales, que sean destinatarios de entregas de gas y electricidad que se entiendan realizadas en el territorio de aplicación del impuesto conforme a lo dispuesto en el apartado siete del artículo 68, siempre que la entrega la efectúe un empresario o profesional no establecido en el citado territorio y le hayan comunicado el número de identificación que a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido tengan asignado por la Administración española.

Dos.—A los efectos de lo dispuesto en este artículo, se considerarán establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto los sujetos pasivos que tengan en el mismo la sede de su actividad económica, su domicilio fiscal o un establecimiento permanente que intervenga en la realización de las entregas de bienes y prestaciones de servicios sujetas al Impuesto.

Se entenderá que dicho establecimiento permanente interviene en la realización de entregas de bienes o prestaciones de servicios cuando ordene sus factores de producción materiales y humanos o uno de ellos con la finalidad de realizar cada una de ellas.

Tres.—Tienen la consideración de sujetos pasivos las herencias yacentes, comunidades de bienes y demás entidades que, careciendo de personalidad jurídica, constituyan una unidad económica o un patrimonio separado susceptible de imposición, cuando realicen operaciones sujetas al Impuesto.»

Once.—Se añade un nuevo artículo 117 bis con la siguiente redacción:

«**Artículo 117 bis—Solicitudes de devolución de empresarios o profesionales establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto correspondientes a cuotas soportadas por operaciones efectuadas en la Comunidad con excepción de las realizadas en dicho territorio**

Los empresarios o profesionales que estén establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto solicitarán la devolución de las cuotas soportadas por adquisiciones o importaciones de bienes o servicios efectuadas en la Comunidad, con excepción de las realizadas en dicho territorio, mediante la presentación de una solicitud a través de los formularios dispuestos al efecto en la Administración Tributaria.

La recepción y tramitación de la solicitud a que se refiere este artículo se llevarán a cabo a través del procedimiento que se establezca reglamentariamente.»

Doce.—Se modifica el título del Capítulo III del Título VIII, que queda redactado de la siguiente forma:

«CAPÍTULO III

DEVOLUCIONES A EMPRESARIOS O PROFESIONALES NO ESTABLECIDOS EN EL TERRITORIO DE APLICACIÓN DEL IMPUESTO»

Trece.—Se modifica el artículo 119, que queda redactado de la siguiente forma:

«**Artículo 119.—Régimen especial de devoluciones a empresarios o profesionales no establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto pero establecidos en la Comunidad, Islas Canarias, Ceuta o Melilla**

Uno.—Los empresarios o profesionales no establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto pero establecidos en la Comunidad, Islas Canarias, Ceuta o Melilla, podrán solicitar la devolución de las cuotas del Impuesto sobre el Valor Añadido que hayan soportado por las adquisiciones o importaciones de bienes o servicios realizadas en dicho territorio, de acuerdo con lo previsto en este artículo y con arreglo a los plazos y al procedimiento que se establezcan reglamentariamente.

A estos efectos, se considerarán no establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto los empresarios o profesionales que, siendo titulares de un establecimiento permanente situado en el mencionado territorio, no realicen desde dicho establecimiento entregas de bienes ni prestaciones de servicios durante el periodo a que se refiera la solicitud.

Bi. —resaburu eta profesionalak ondokoak bete behar dituzte eskabidearen epealdian:

1. Establezimendua eduki behar dute Batasunean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan.

2. Zergaren aplikazio-lurraldean ezin dute egin ondoren adieraziko direnez beste kargapeko ondasun emate zein zerbitzugintzarik:

a) Foru arau honetako 84. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 2, 3 eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera Zergaren subjektu pasiboak hartzaile diren ondasun emateak eta zerbitzugintzak.

b) Foru arau honetako 21, 23, 24 eta 64. artikuluetan xedatutakoaren arabera Zergatik salbuetsita dauden garraio-zerbitzuak eta beraien zerbitzu osagarriak.

3. Ezin dute jaso foru arau honetako 84. artikuluko 2. eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera subjektu pasibo ez diren ondasun ematerik, ez zerbitzurik.

4. Foru arau honetako VIII. tituluko I. kapituluaren kenkaria aplikatzeko ezarritako betekizun eta muga guztiak bete behar dituzte, batez ere 95. eta 96. artikuluetan ezarritakoak, bai eta artikulua honetan ezarritakoak ere.

5. Zergaren aplikazio-lurraldean eskuratu edo inportatutako ondasunak edo jasotako zerbitzuak honelako eragiketarako egiteko erabili behar dituzte: ezarrita dauden Batasuneko estatuko indarreko arautegiaren arabera kenkaria (bertako kenkari-ehunekoa-rekin) aplikatzeko eskubidea sortzen duten eragiketarako.

Itzulketa eskabidea aurkeztu ondoren kenkari-ehunekoa erregularizatzen bada, eskatzaileak kenkariaren zenbatekoa zuzendu behar du nahitaez, eta jasotako soberako kopurua itzuli beharko du arau bidez ezarritako den prozeduraren bitartez.

Itzuli beharreko kopurua kalkulatzeko foru arau honetako 106. artikuluko irizpideak erabiliko dira. Horren ondoretarako, enpresaburuak edo profesionalak kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dioten ondasunak edo zerbitzuak zertan erabili dituen hartuko da kontuan, lehenbizi egoiliar den estatuko arautegiaren arabera eta gero foru arau honetan xedatutakoaren arabera.

6. Itzulketa eskabidea baliabide elektronikoen bidez aurkeztu behar dute egoiliartuta dauden Batasuneko estatuak berriaz ezarritako atari elektronikoa erabilia.

Hiru. —Artikulu honetako bigarren idatz-zatiko 5. zenbakian ezarritako Kanarietan, Ceutan edo Melillan ezarritako enpresaburu eta profesionalen erabilketarako zerga, eta aplikatu ere lurralde bakoitzean indarrean dauden kontsumoaren gaineko zeharkako zergen berezko ezaugarrien arabera.

Lau. —Itzultzeko eskatzen den kopurua ez bada epealdiaren araberrako gutxienezko zenbatekoa baino gehiago (arau bidez zehaztutako da nola kalkulatu), eskabidea ez da onartuko.

Bost. —Itzulketa eskabidearen epealdia aurreko urtea edo hiru hilera izan behar da.

Hala ere, kasu batean eskabidearen epealdia hiru hilera baino laburragoa izan daiteke: egutegiko urtearen saldoa denean.

Sei. —Arau bidez ezarritako epealdian itzulketa ordaintzeko agindurik ematen ez bada Zerga Administrazioari egotzi ahal zaion arazo batengatik, itzultzeko dagoen kopuruari indarrean dagoen legerian ezarritako berandutza korritua aplikatuko zaio (ez da egongo eskatu beharrik).

Hala ere, eskatzaileak ez badie arau bidez ezarritako epealdian erantzuten informazio gehiago emateko agindeiei, ez da sorkuntza berandutza korriturik.

Dos. —Los empresarios o profesionales que soliciten las devoluciones a que se refiere este artículo deberán reunir las siguientes condiciones durante el periodo al que se refiera su solicitud:

1.º Estar establecidos en la Comunidad o en las Islas Canarias, Ceuta o Melilla.

2.º No haber realizado en el territorio de aplicación del Impuesto entregas de bienes o prestaciones de servicios sujetas al mismo distintas de las que se relacionan a continuación:

a) Entregas de bienes y prestaciones de servicios en las que los sujetos pasivos del Impuesto sean sus destinatarios, de acuerdo con lo dispuesto en los números 2, 3 y 4 del apartado uno del artículo 84 de esta Norma Foral.

b) Servicios de transporte y sus servicios accesorios que estén exentos del Impuesto en virtud de lo dispuesto en los artículos 21, 23, 24 y 64 de esta Norma Foral.

3.º No ser destinatarios de entregas de bienes ni de prestaciones de servicios respecto de las cuales tengan dichos solicitantes la condición de sujetos pasivos en virtud de lo dispuesto en los números 2 y 4 del apartado uno del artículo 84 de esta Norma Foral.

4.º Cumplir con la totalidad de los requisitos y limitaciones establecidos en el Capítulo I del Título VIII de esta Norma Foral para el ejercicio del derecho a la deducción, en particular, los contenidos en los artículos 95 y 96 de la misma, así como los referidos en este artículo.

5.º Destinar los bienes adquiridos o importados o los servicios de los que hayan sido destinatarios en el territorio de aplicación del Impuesto a la realización de operaciones que originen el derecho a deducir de acuerdo con lo dispuesto en la normativa vigente en el Estado miembro en donde estén establecidos y en función del porcentaje de deducción aplicable en dicho Estado.

Si con posterioridad a la presentación de la solicitud de devolución se regularizara el porcentaje de deducción aplicable, el solicitante deberá proceder en todo caso a corregir su importe, rectificando la cantidad solicitada o reembolsando la cantidad devuelta en exceso de acuerdo con el procedimiento que se establezca reglamentariamente.

En la determinación del importe a devolver se aplicarán los criterios contenidos en el artículo 106 de esta Norma Foral. A estos efectos, se tendrá en cuenta cuál es la utilización de los bienes o servicios por el empresario o profesional no establecido en la realización de operaciones que le originan el derecho a deducir, en primer lugar, según la normativa aplicable en el Estado miembro en el que esté establecido y, en segundo lugar, según lo dispuesto en esta Norma Foral.

6.º Presentar su solicitud de devolución por vía electrónica a través del portal electrónico dispuesto al efecto por el Estado miembro en el que estén establecidos.

Tres. —Lo previsto en el número 5 del apartado dos de este artículo resultará igualmente aplicable a los empresarios o profesionales establecidos en las Islas Canarias, Ceuta o Melilla, de acuerdo con las características propias de los impuestos indirectos generales sobre el consumo vigentes en dichos territorios.

Cuatro. —No se admitirán solicitudes de devolución por un importe global inferior al umbral que, en función del periodo de devolución, se determine reglamentariamente.

Cinco. —Las solicitudes de devolución deberán referirse a los periodos anual o trimestral inmediatamente anteriores a su presentación.

No obstante, las solicitudes de devolución podrán referirse a un periodo de tiempo inferior a tres meses cuando dicho periodo constituya el saldo de un año natural.

Seis. —Transcurridos los plazos establecidos reglamentariamente sin que se haya ordenado el pago de la devolución por causa imputable a la Administración tributaria, se aplicará a la cantidad pendiente de devolución el interés de demora establecido en la legislación vigente, sin necesidad de que el solicitante así lo reclame.

No obstante, no se devengarán intereses de demora si el solicitante no atiende en el plazo previsto reglamentariamente los requerimientos de información adicional o ulterior que le sean hechos.

Eta, halaber, ez da berandutza korriturik sortuko harik eta, arau bidez ezarritako kasuetan, eskabidean aipatzen diren fakturen edo inportazio agirien kopia elektronikoak aurkeztu arte.

Zazpi. —Zerga Administrazioak informazio gehiago eskatu ahal izango die eskatzaileei, ezarrita dauden Batasuneko estatuko Zerga Administrazioari edo hirugarren batzuei, eta aurkezteko itzulketa- eskubideak bidezkoak diren ebazteko eta, batez ere, itzuli beharreko kopurua artikulua honetan eta beraren arau garapenean ezarritakoaren arabera behar bezala zehazteko behar diren frogagiriak.

Itzulketa bat egin ondoren egiaztatzen bada ez zela bidezkoa izan dirua itzultzea, artikulua honetan edo beraren arau garapenean ezarritako betekizunak eta mugak bete ez direlako edo datu faltsuak edo okerrak emanaz lortu delako, Zerga Administrazioak itzulitako dirua eta sortutako berandutza korrituak berreskuratuko ditu, eta gerta liteke zehapena ere ezartzea bidezko espedientearen instruitu ondoren (honek ez ditu eragozten Zergaren bilketan elkarri laguntzeaz ezarritako xedapenak).

Borondatezko epealdian eskatzaileak Zergaren kuota, zehapena edo sortutako berandutza korrituak ordaintzen ez baditu, indarreko legerian ezarritako kautelazko neurriak aplikatu ahal izango dira.»

Hamalau. —119 bis artikulua gehitu zaio VIII. tituluko III. kapituluari; hona:

«**119 bis artikulua — Ez Zergaren aplikazio-lurraldean, ez Batasunean, ez Kanarietan, ez Ceutan, ez Melillan establezimendurik ez duten enpresaburu eta profesional batzuentzako itzulketen araubide berezia**

Foru arau honetako 119. artikuluan ezarritako baldintzak eta mugak betez gero, ez Zergaren aplikazio-lurraldean, ez Batasunean, ez Kanarietan, ez Ceutan, ez Melillan establezimendurik ez duten enpresaburuek eta profesionalak lurralde horretan egindako ondasan eta zerbitzuen eskuraketengatik eta inportazioengatik jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak itzultzeko eskatu ahal izango dute, ondoren ezarritakoari lotuta eta arau bidez ezarriko den prozedurari atxikita:

1. Lehenbizi eskatzaileek Zergaren aplikazio-lurraldeko egoiliarra den ordezkaria izendatu behar dute; hark erazko betebeharrak edo prozedurakoak bete beharko ditu eta erantzukizun solidarioa edukiko du bidegabeko itzulketa gertatuz gero. Herri Ogasunak behar besteko kaudia eskatuko ahal izango dio ordezkariari.

2. Eskatzaileen egoitza Zergaren aplikazio-lurraldean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan establezimendua duten enpresaburu eta profesionalen aldeko elkarrekotasuna aintzatetsita duen estatu batean egon behar da.

Aurreko paragrafoan aipatutako tratamenduaren elkarrekotasuna administrazio eskudunaren ebazpen baten bidez aintzatetsiko da.»

Hamabost. —163 bis artikuluko lehenengo eta bigarren idatz-zatiak aldatu dira eta honela geratu dira:

«Bat. —Batasunean establezimendurik ez duten enpresaburuek eta profesionalak bertan establezimendua edo ohiko egoitza edo etxebizitza edukita ez enpresaburu ez profesional ez diren pertsonen zerbitzu elektronikoak egiten badizkiete, kapitulu honetan ezarritako araubide bereziari heldu ahal diote.

Araubide berezi hori foru arau honetako 70. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 4. zenbakian xedatutakoaren arabera edo Batasuneko kide diren beste estatutu batzuetan indarrean dauden arlo bereko legerietan xedatutakoaren arabera Batasunean egintzat izan behar diren zerbitzugintza guztiei aplikatuko zaie.

Tampoco procederá el devengo de intereses de demora hasta que no se presente copia electrónica de las facturas o documentos de importación a que se refiera la solicitud en los casos previstos reglamentariamente.

Siete. —La Administración tributaria podrá exigir a los solicitantes, a la Administración tributaria del Estado miembro de establecimiento o a terceros, la aportación de la información adicional y, en su caso, ulterior, así como los justificantes necesarios para poder apreciar el fundamento de las solicitudes de devolución que se presenten y, en particular, para la correcta determinación del importe de la devolución según lo previsto en este artículo y en su desarrollo reglamentario.

Si con posterioridad al abono de una devolución se pusiera de manifiesto su improcedencia por no cumplirse los requisitos y limitaciones establecidos por este artículo o por su desarrollo reglamentario, o bien por haberse obtenido aquella en virtud de datos falsos, incorrectos o inexactos, la Administración tributaria procederá directamente a recuperar su importe junto con los intereses de demora devengados y la sanción que se pudiera imponer instruido el expediente que corresponda, sin perjuicio de las disposiciones sobre asistencia mutua en materia de recaudación relativas al Impuesto.

La falta de pago por el solicitante en periodo voluntario de la cuota del Impuesto, de una sanción o de los intereses de demora devengados, permitirá adoptar las medidas cautelares establecidas en la legislación vigente.»

Catorce. —Se añade un nuevo artículo 119 bis al Capítulo III del Título VIII con la siguiente redacción:

«**Artículo 119 bis. — Régimen especial de devoluciones a determinados empresarios o profesionales no establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto, ni en la Comunidad, Islas Canarias, Ceuta o Melilla**

Los empresarios o profesionales no establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto ni en la Comunidad, Islas Canarias, Ceuta o Melilla, podrán solicitar la devolución de las cuotas del Impuesto sobre el Valor Añadido que hayan soportado por las adquisiciones o importaciones de bienes o servicios realizadas en dicho territorio, cuando concurren las condiciones y limitaciones previstas en el artículo 119 de esta Norma Foral sin más especialidades que las que se indican a continuación y con arreglo al procedimiento que se establezca reglamentariamente:

1.º Los solicitantes deberán nombrar con carácter previo un representante que sea residente en el territorio de aplicación del Impuesto que habrá de cumplir las obligaciones formales o de procedimiento correspondientes y que responderá solidariamente con aquéllos en los casos de devolución improcedente. La Hacienda Pública podrá exigir a dicho representante caución suficiente a estos efectos.

2.º Dichos solicitantes deberán estar establecidos en un Estado en que exista reciprocidad de trato a favor de los empresarios o profesionales establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto, Islas Canarias, Ceuta y Melilla.

El reconocimiento de la existencia de la reciprocidad de trato a que se refiere el párrafo anterior se efectuará por resolución de la Administración competente.»

Quince. —Se modifican los apartados uno y dos del artículo 163 bis, que quedan redactados de la siguiente forma:

«Uno. —Los empresarios o profesionales no establecidos en la Comunidad que presten servicios electrónicos a personas que no tengan la condición de empresario o profesional y que estén establecidas en la Comunidad o que tengan en ella su domicilio o residencia habitual, podrán acogerse al régimen especial previsto en el presente capítulo.

El régimen especial se aplicará a todas las prestaciones de servicios que, de acuerdo con lo dispuesto por el número 4 del apartado uno del artículo 70 de esta Norma Foral, o sus equivalentes en las legislaciones de otros Estados miembros, deban entenderse efectuadas en la Comunidad.

Bi.—Kapitulu honen ondoreetarako definizio hauek aplikatuko dira:

a) “Batasunean egoiliartuta ez dagoen enpresaburua edo profesionala”: Batasunean ez daukana ez jarduera ekonomikoaren egoitza, ez establezimendu iraunkorrik, eta foru arau honetako 164. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera edo Batasuneko kide diren beste estatu batzuen arlo bereko legeriaren arabera Batasunean identifikatuta egon beharra ere ez daukana.

b) “Zerbitzu elektronikoak” edo “baliabide elektronikoen bitartez egindako zerbitzuak”: foru arau honetako 69. artikuluko hiru-garren idatz-zatiko 4. zenbakian definitutako zerbitzuak.

c) “Batasuneko identifikazio-estatua”: egoiliartu gabeko enpresaburu edo profesionalak jardueraren hasiera Batasunean airtortzeko hautatutako Batasuneko estatua, artikuluko honetan xedatutakoarekin bat etorriz.

d) “Batasuneko kontsumo-estatua”: foru arau honetako 70. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 4. zenbakian edo Batasuneko beste estatu batzuen xedapen baliokidean ezarritakoaren arabera zerbitzu elektronikoak egin diren Batasuneko estatua.

e) “Baliabide elektronikoen bitartez egiten diren zerbitzuen araubide bereziko aldiak autolikidazioa”: Batasuneko estatu bakoitzean Zergaren zioz ordaindu beharreko kopurua zehazteko behar den informazioa adierazten den autolikidazioa.»

Hamasei.— 163 ter artikuluko bigarren idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

«Bi.—Baldin eta establezimendurik ez daukan enpresaburu edo profesional batek Espainia ez Batasuneko beste estatu bat hautatzen badu araubide berezi honen hasierako aitorpena aurkezteko, foru arau honetako 70. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 4. zenbakian xedatutakoaren arabera Zergaren aplikazio-lurraldean egintzat jo behar diren eragiketeki dagokienez Zergaren zioz ordaindu beharreko kopurua aurreko idatz-zatian aipatutako aitorpena aurkeztuta sartu behar du Batasuneko identifikazio-estatuan.

Gainera, establezimendurik ez daukaten enpresaburuek eta profesionalak aurreko lehenengo idatz-zatian ezarritako gainerako betebeharrak bete behar dituzte Batasuneko identifikazio-estatuan, eta batez ere bertako d) letran ezarritakoak. Halaber, eragiketen hartzailearen ohiko egoitza edo etxebizitza Zergaren aplikazio-lurraldean badago, edo bertan egoiliartuta badago, enpresaburuek eta profesionalak faktura edo ordezkari eman behar dute.»

Hamazazpi.— 163 quater artikulua aldatu da eta honela geratu da:

«163 quater artikulua.— **Jasandako kuotak kentzeko eskubidea**

Foru arau honetako 119. artikuluko bigarren idatz-zatiko 2. zenbakian xedatutakoa gorabehera, Batasunean establezimendurik ez duten enpresaburuek eta profesionalak araubide berezi honi helden badiote, Zergaren aplikazio-lurraldean egintzat jo behar diren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko edo inportatzeko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zioz jasandako kuotak itzultzeko eskubidea izango dute, baldin eta ondasunok eta zerbitzuok foru arau honetako 163 bis artikuluko bigarren idatz-zatiko b) letran aipatutako zerbitzuak egiteko badira. Eskubide hau erabiltzeko prozedura foru arau honetako 119 bis artikuluan ezarri da.

Ondore hauetarako, ez da beharrezkoa izango Zergaren aplikazio-lurraldean establezimendua daukan enpresaburu eta profesionalen aldeko elkarrekotasuna aintzatetsita egotea.

Artikulu honetan xedatutakoari helden dioten enpresaburuek eta profesionalak ordezkari bat izendatu behar dute ondore hauetarako, Zerga Administrazioarekin jardun dezan.»

Dos.—A efectos del presente capítulo, serán de aplicación las siguientes definiciones:

a) “Empresario o profesional no establecido en la Comunidad”: Todo empresario o profesional que no tenga la sede de su actividad económica en la Comunidad ni posea un establecimiento permanente en el territorio de la Comunidad ni tampoco tenga la obligación, por otro motivo, de estar identificado en la Comunidad conforme al número 2 del apartado uno del artículo 164 de esta Norma Foral o sus equivalentes en las legislaciones de otros Estados miembros;

b) “Servicios electrónicos” o “servicios prestados por vía electrónica”: Los servicios definidos en el número 4 del apartado tres del artículo 69 de esta Norma Foral;

c) “Estado miembro de identificación”: El Estado miembro por el que haya optado el empresario o profesional no establecido para declarar el inicio de su actividad como tal empresario o profesional en el territorio de la Comunidad, de conformidad con lo dispuesto en el presente artículo;

d) “Estado miembro de consumo”: El Estado miembro en el que se considera que tiene lugar la prestación de los servicios electrónicos conforme al número 4 del apartado uno del artículo 70 de esta Norma Foral o sus equivalentes en otros Estados miembros;

e) “Autoliquidación periódica del régimen especial aplicable a los servicios prestados por vía electrónica”: La autoliquidación en la que consta la información necesaria para determinar la cuantía del impuesto correspondiente en cada Estado miembro.»

Dieciséis.— Se modifica el apartado dos del artículo 163 ter, que queda redactado de la siguiente forma:

«Dos.— En caso de que el empresario o profesional no establecido hubiera elegido cualquier otro Estado miembro distinto de España para presentar la declaración de inicio en este régimen especial, y en relación con las operaciones que, de acuerdo con lo dispuesto por el número 4 del apartado uno del artículo 70 de esta Norma Foral, deban considerarse efectuadas en el territorio de aplicación del Impuesto, el ingreso del Impuesto correspondiente a las mismas deberá efectuarse mediante la presentación en el Estado miembro de identificación de la declaración a que se hace referencia en el apartado anterior.

Además, el empresario o profesional no establecido deberá cumplir el resto de obligaciones contenidas en el apartado uno anterior en el Estado miembro de identificación y, en particular, las establecidas en la letra d) de dicho apartado. Asimismo, el empresario o profesional deberá expedir y entregar factura o documento sustitutivo cuando el destinatario de las operaciones se encuentre establecido o tenga su residencia o domicilio habitual en el territorio de aplicación del Impuesto.»

Diecisiete.— Se modifica el artículo 163 quater, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 163 quáter.— **Derecho a la deducción de las cuotas soportadas**

Sin perjuicio de lo dispuesto en el número 2 del apartado dos del artículo 119 de esta Norma Foral, los empresarios o profesionales no establecidos en la Comunidad que se acojan a este régimen especial tendrán derecho a la devolución de las cuotas del Impuesto sobre el Valor Añadido soportadas en la adquisición o importación de bienes y servicios que deban entenderse realizadas en el territorio de aplicación del Impuesto, siempre que dichos bienes y servicios se destinen a la prestación de los servicios a los que se refiere la letra b) del apartado dos del artículo 163 bis de esta Norma Foral. El procedimiento para el ejercicio de este derecho será el previsto en el artículo 119 bis de esta Norma Foral.

A estos efectos no se exigirá que esté reconocida la existencia de reciprocidad de trato a favor de los empresarios o profesionales establecidos en el territorio de aplicación del Impuesto.

Los empresarios o profesionales que se acojan a lo dispuesto en este artículo no estarán obligados a nombrar representante ante la Administración tributaria a estos efectos.»

Bigarren artikulua.— Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauaren aldarazpena

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauan aldaketa hauek egin dira:

Bat.—13. artikuluko 1. idatz-zatiko f) letra aldatu da eta honela geratu da:

«f) Itsas nabigazioan edo nazioarteko eremuan erabilitako edukiontzi, kasko soileko itsasontzi eta aireontzien errentamendu, lagapen edo eskualdaketa onorioz Espainiako lurraldean, establezimendu iraunkorren bitartekaritza gabe, lortutako errentak.

Aireontziei dagokienez, kasu honetan ere aplikatuko da salbuespena: konpainia errentariari erabiltzen dituen hegazkinen hegaldi guztietako guztirako distantziaren %50 baino gehiago nazioarteko ibilbideetan egiten denean.»

Bi.—13. artikuluko 1. idatz zatiari m) eta n) letra gehitu zaizkio; hona:

«m) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bateginean araupetutakoak bezalako pentsio planek, Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliartutakoek, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako irabazien dibidenduak eta partaidetzak, bai eta erakunde horiek Europar Batasuneko beste estatu batzuetan kokatutako establezimendu iraunkorren bitartez lortutako irabazienak ere.

Araupetutakoak bezalako funtsak dira ondoko betekizunak betetzen dituzten gizarte aurreikuspeneko erakundeak:

- Erakundearen xede bakarra erretiratu, hil edo ezinduta edo menpekotasanean geratu ondoren onuradunei prestazio osagarria ematea izan behar da, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bategineko 8.6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
- Enpresaren ekarpenak prestazioa jasoko duen partaideari egotzi behar zaizkio zergen ondoretarako; hari modu ezeztazinean eman behar zaio prestazioa noizbait jasotzeko eskubidea.
- Erakundeak lehentasuneko zerga araubidea eduki behar du, hain zuzen ere ekarpenen eta enpresen kontribuzioen gaineko zerga ezarpena geroratzeko aukera ematen duena. Araubide horretan ekarpen eta kontribuzio guztiak, bai eta haien kudeaketaren ondoriozko etekin guztiak ere, prestazioa jasotzen denean kargatu behar dira.»

«n) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak araupetutako talde inbertsioko erakundeek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako dibidenduak eta mozkin partaidetzak (zuzentarau horren bidez higigarrien baloreetako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dira). Nolanahi ere, salbuespen honen aplikazioak inolaz ere ezin du ekarri ordaindu beharreko kopurua errentei egoitza Espainiako lurraldean duten talde inbertsioko erakundeek dagokien Sozietateen gaineko Zergaren tasa aplikatuta sortuko litzatekeena baino gutxiago izatea.»

Hiru.—23. artikuluari 6. idatz-zatia gehitu zaio; hona:

«6. Zergadunaren egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean badago, erregela berezi hauek aplikatu behar dira:

1. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako etekinen zerga oinarria kalkulatzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legean (Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partez aldatu ditu) ezarritako gastuak ken daitezke, baldin eta zergadunak frogatzen badu gastuok zuzenean lotuta daudela Espainian lortutako etekinekin eta lotura ekonomiko zuzena eta ezeztazina dutela Espainian egindako jarduerarekin.

Artículo segundo.— Modificación de la Norma Foral 5/1999, de 15 de abril, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 5/1999, de 15 de abril, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

Uno.—Se modifica la letra f) del apartado 1 del artículo 13, que queda redactada de la siguiente forma:

«f) Las rentas obtenidas en territorio español, sin mediación de establecimiento permanente en éste, procedentes del arrendamiento, cesión o transmisión de contenedores o de buques y aeronaves a casco desnudo, utilizados en la navegación marítima o aérea internacional.

En el caso de aeronaves, la exención se aplicará también cuando el grado de utilización en trayectos internacionales represente más del 50 por 100 de la distancia total recorrida en los vuelos efectuados por todas las aeronaves utilizadas por la compañía arrendataria.»

Dos.—Se añaden dos nuevas letras, m) y n), al apartado 1 del artículo 13 con la siguiente redacción:

«m) Los dividendos y participaciones en beneficios obtenidos sin mediación de establecimiento permanente por fondos de pensiones equivalentes a los regulados en el Texto Refundido de la Ley de Planes y Fondos de Pensiones aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2002, de 29 de noviembre, que sean residentes en otro Estado miembro de la Unión Europea o por establecimientos permanentes de dichas instituciones situados en otro Estado miembro de la Unión Europea.

Se consideran fondos de pensiones equivalentes aquellas instituciones de previsión social que cumplan los siguientes requisitos:

- Que tengan por objeto exclusivo proporcionar una prestación complementaria en el momento de la jubilación, fallecimiento, incapacidad o dependencia en los mismos términos previstos en el artículo 8.6 del Texto Refundido de la Ley de regulación de los planes y fondos de pensiones.
- Que las contribuciones empresariales que pudieran realizarse se imputen fiscalmente al partícipe a quien se vincula la prestación, transmitiéndole de forma irrevocable el derecho a la percepción de la prestación futura.
- Que cuenten con un régimen fiscal preferencial de diferimiento impositivo tanto respecto de las aportaciones como de las contribuciones empresariales realizadas a los mismos. Dicho régimen debe caracterizarse por la tributación efectiva de todas las aportaciones y contribuciones así como de la rentabilidad obtenida en su gestión en el momento de la percepción de la prestación.»

«n) Los dividendos y participaciones en beneficios obtenidos sin mediación de establecimiento permanente por las instituciones de inversión colectiva reguladas por la Directiva 2009/65/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 13 de julio de 2009, por la que se coordinan las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas sobre determinados organismos de inversión colectiva en valores mobiliarios; no obstante, en ningún caso la aplicación de esta exención podrá dar lugar a una tributación inferior a la que hubiera resultado de haberse aplicado a dichas rentas el mismo tipo de gravamen por el que tributan en el Impuesto sobre Sociedades las instituciones de inversión colectiva domiciliadas en territorio español.»

Tres.—Se añade un nuevo apartado 6 al artículo 23, con la siguiente redacción:

«6. Cuando se trate de contribuyentes residentes en otro Estado miembro de la Unión Europea, se aplicarán las siguientes reglas especiales:

1.^a Para la determinación de la base imponible correspondiente a los rendimientos que obtengan sin mediación de establecimiento permanente, se podrá deducir los gastos previstos en la Ley 35/2006, de 28 de noviembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y de modificación parcial de las leyes de los Impuestos sobre Sociedades, sobre la Renta de no Residentes y sobre el Patrimonio, siempre que el contribuyente acredite que están relacionados directamente con los rendimientos obtenidos en España y que tienen un vínculo económico directo e indisoluble con la actividad realizada en España.

2. Ondare irabazien zerga oinarria kalkulatzeko, gertatutako ondare aldaketa bakoitzari ondokoetan ezarritako arauak aplikatu behar zaizkio: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko (Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partez aldatu ditu) III. tituluko II. kapituluko 4. atala; lege bereko X. tituluko 6. atala (94.1.a artikulua izan ezik).»

Lau.—30. artikuluko 2. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

«2. Foru arau honetan edo ezarpen bikoitza ekiditeko, foru arau honetako 23.2, 23.6, 25 eta 32.7. artikuluetan xedatutakoa kontuan hartu gabe, ezarri behar den hitzarmenean, establezimendu iraunkorrik gabe, zerga honen ziozko zergadunei dagokien zera zorra zehazteko bildu diren xedapenak ezarri ostean gertatu den kopuruaren pareko atxikipena edo konturako sarrera egin beharra duten subjektuek.

Aurrekoa gorabehera, konturako sarrera zenbatzeko arauz xedatutakoari begiratuko zaio.»

Bost.—30. artikuluko 4. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

«4. Ondokoei ez zaie aplikatuko atxikipenik ez konturako sarre-
rarik:

a) Foru arau honetako 13. artikuluan edo ezarpen bikoitza ekiditeko indarrean dagoen hitzarmen batean xedatutakoa dela bide salbuetsita dauden errentei; honek ez du eragozten artikuluko honetako 5. idatz-zatian ezarritako aitortu beharra.

Hori gorabehera, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaie 13. artikuluko 1. idatz-zatiko l), m) eta n) letretan aipatzen diren errentei.

13.1 c) artikuluan aipatzen diren etekinak ez dira aitortu behar.

b) Akzio edo partaidetzen jaulkipen primak banatzearen edo kapitala murriztearen ondoriozko etekinei. Arau bidez kasu haue-
tan atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharra ezarri ahal izango da.

c) Zerga honen zergadunei, establezimendu iraunkorrik ez dutenei, ordaindutako errentei, baldin eta Zerga ordaindu dela edo salbuespena dagoela frogatzen bada.

d) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 118 bis artikuluko 1. idatz-zatiko c) letran aipatzen diren errentei.

e) Arau bidez ezartzen diren errentei.»

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.—Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, non egintzat jotzen diren enpresaburu eta profesionalei (hala dihardutenei) egiten zaizkien kulturaren, artearen edo kirolaren arloetako zerbitzuak (azokak eta erakusketak barne).

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 70. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 3. zenbakia aldatu da eta honela geratu da (2011ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da):

«3. Kulturaren, artearen, kirolaren, zientziaren, hezkuntzaren eta aisialdiaren arloko zerbitzuak eta antzekoak (azokak eta erakusketak, esaterako), eta haien zerbitzu osagarriak, baldin eta hartzailea enpresaburua edo profesionala (hala diharduena) bada eta zerbitzuak lurralde horretan egiten badira.»

Bigarrena.—Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, non egintzat jotzen diren ez enpresaburu ez profesional (hala dihardutenak) ez diren pertsonen egiten zaizkien ondasun higigarrien inguruko zerbitzuak eta kulturaren, artearen edo kirolaren arloetako zerbitzuak (azokak eta erakusketak barne).

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 70. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 7. zenbakia aldatu da eta honela geratu da (2011ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da):

2.^a La base imponible correspondiente a las ganancias patrimoniales se determinará aplicando, a cada alteración patrimonial que se produzca, las normas previstas en la Sección 4.a, del Capítulo II, del Título III y en la Sección 6.a, del Título X salvo el artículo 94.1.a), segundo párrafo, de la Ley 35/2006, de 28 de noviembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y de modificación parcial de las leyes de los Impuestos sobre Sociedades, sobre la Renta de no Residentes y sobre el Patrimonio.»

Cuatro.—Se modifica el apartado 2 del artículo 30, que queda redactado de la siguiente forma:

«2. Los sujetos obligados a retener deberán retener o ingresar a cuenta una cantidad equivalente a la que resulte de aplicar las disposiciones previstas en esta Norma Foral para determinar la deuda tributaria correspondiente a los contribuyentes por este impuesto sin establecimiento permanente o las establecidas en un convenio para evitar la doble imposición que resulte aplicable, sin tener en consideración lo dispuesto en los artículos 23.2, 23.6, 25 y 32.7.

Sin perjuicio de lo anterior, para el cálculo del ingreso a cuenta se estará a lo dispuesto reglamentariamente.»

Cinco. Se modifica el apartado 4 del artículo 30, que queda redactado de la siguiente forma:

«4. No procederá practicar retención o ingreso a cuenta respecto de:

a) Las rentas que estén exentas en virtud de lo dispuesto en el artículo 13 de esta Norma Foral o en un convenio para evitar la doble imposición que resulte aplicable, sin perjuicio de la obligación de declarar prevista en el apartado 5 de este artículo.

No obstante lo anterior, sí existirá obligación de practicar retención o ingreso a cuenta respecto de las rentas a las que se refieren las letras l), m) y n) del apartado 1 del artículo 13.

No existirá obligación de presentar declaración respecto de los rendimientos a que se refiere el artículo 13.1 c).

b) El rendimiento derivado de la distribución de la prima de emisión de acciones o participaciones, o de la reducción de capital. Reglamentariamente podrá establecerse la obligación de practicar retención o ingreso a cuenta en estos supuestos.

c) Las rentas satisfechas o abonadas a contribuyentes por este impuesto sin establecimiento permanente, cuando se acredite el pago del impuesto o la procedencia de exención.

d) Las rentas a que se refiere la letra c) del apartado 1 del artículo 118.bis de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

e) Las rentas que se establezcan reglamentariamente.»

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.—Lugar de realización en el Impuesto sobre el Valor Añadido de los servicios de acceso relativos a manifestaciones culturales, artísticas o deportivas, ferias y exposiciones prestados a un empresario o profesional actuando como tal.

A partir del 1 de enero de 2011 el número 3 del apartado uno del artículo 70 de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, quedará redactado de la siguiente forma:

«3.º El acceso a manifestaciones culturales, artísticas, deportivas, científicas, educativas, recreativas o similares, como las ferias y exposiciones, y los servicios accesorios al mismo, siempre que su destinatario sea un empresario o profesional actuando como tal y dichas manifestaciones tengan lugar efectivamente en el citado territorio.»

Segunda.—Lugar de realización en el Impuesto sobre el Valor Añadido de los servicios relacionados con bienes muebles, de los accesorios a los transportes y los relativos a manifestaciones culturales, artísticas o deportivas, ferias y exposiciones cuyo destinatario no sea un empresario o profesional actuando como tal.

A partir del 1 de enero de 2011, el número 7 del apartado uno del artículo 70 de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, quedará redactado de la siguiente forma:

«7. Ondoren azalduko diren zerbitzuak, Zergaren aplikazio-lurraldean eginez gero eta hartzailea ez bada ez enpresaburua ez hala diharduen profesionala:

- a) Garraioaren osagarri diren zerbitzuak: zama-lanak, garraio-aldaketa, eskuztatzea eta antzekoak.
- b) Ondasun higigarri eta gorpuzkorretan egiten diren lanak eta obrak, eta ondasun horiei buruzko peritu-txostenak, balorazioak eta irizpenak.
- c) Kulturaren, artearen, kirolaren, zientziaren, hezkuntzaren eta aisialdiaren arloko zerbitzuak eta adurrezko jokoan eta antzekoen ingurukoak (azokak eta erakusketak, esaterako), are haien antolaketak zerbitzuak eta zerbitzu osagarri guztiak.»

Hirugarrena.—Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, non egintzat jotzen diren garraio-bideak errentatzeko zerbitzuak.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 70. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 9. zerbakia aldatu da eta honela geratu da (2013ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da):

«9

A) Garraio-bideak errentatzeko zerbitzuak, kasu hauetan:

- a) Garraio-bideak epe laburrerako errentatzeko zerbitzuak, hartzaileak Zergaren aplikazio-lurraldean jasotzen baditu.
- b) Epe luzerako errentamenduak, baldin eta hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena) eta egoitza edo ohiko etxebizitza aplikazio-lurraldean badauka.

Hala ere, ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena) ez den pertsonari epe luzerako errentatutakoa aisiarako ontzia bada, zerbitzua Zergaren aplikazio-lurraldean egintzat hartuko da hartzaileak ontzia bertan jasotzen badu eta zerbitzua enpresaburu edo profesional batek egiten badu bere jarduera ekonomikoaren egoitzatik edo aplikazio-lurraldean daukan establezimendu batetik.

B) Zerbaki honetan xedatutakoaren ondoretarako hauxe izango da epe laburra: garraio-bide bat gehienez hogeita hamar egun edukitzea edo erabiltzea etengabe (ontzien kasuan, laurogeita hamar egun gehienez).»

Laugarrena.—Zergaren aplikazio-lurraldean establezimendurik ez duten enpresaburu eta profesionalak eskabideak aurkeztea 2009an jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak itzultzeko.

Zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez egon arren Batasunean, Kanarrietan, Ceutan edo Melillan establezimendua duten enpresaburuek eta profesionalak 2009ko abenduaren 31ra arte aurkezten dituzten itzulketa eskabideak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 119. artikuluan (indarrean dagoen testua) ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.—Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 73. eta 74. artikulua 2010eko urtarilaren 1ean indargabetu dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.—Europar Batasuneko Zuzenbidea txertatzea. Foru dekretu arauemaile honen bidez ondoko zuzentarauak txertatu dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko arautegian:

- Kontseiluaren 2008/8/CE Zuzentaraua, 2008ko otsailaren 12koa, 2006/112/CE Zuzentaraua aldatu duena zerbitzuak egin diren lekuari dagokionez.
- Kontseiluaren 2008/9/CE Zuzentaraua, 2008ko otsailaren 12koa; honen bidez xedapen batzuk ezarri dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren itzulketaz, hain zuzen ere 2006/112/CE Zuzentaruaren arabera itzulketa gertatzen den estatuan ez EBeko beste batean egoiliaritutako subjektu pasiboek egin beharreko itzulketaz.

«7.º Los que se enuncian a continuación, cuando se presten materialmente en dicho territorio y su destinatario no sea un empresario o profesional actuando como tal:

- a) Los servicios accesorios a los transportes tales como la carga y descarga, transbordo, manipulación y servicios similares.
- b) Los trabajos y las ejecuciones de obra realizados sobre bienes muebles corporales y los informes periciales, valoraciones y dictámenes relativos a dichos bienes.
